



Gizarte-Ekintza \ Accion Social
Avda. El Minero, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98





**ABANTO
ZIERBENA**
atseginez!

Adineko pertsonekin

ATSEGINEZ EKINTZA-PLANA



UDALA • AYUNTAMIENTO

ABANTO ZIERBENA LAGUNKOIA

Abanto Zierbena, Bizkaia
Avda. El Minero, 2

48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia

Tel. 94 63 21 00 Fax 94 636 11 98

ADINEKO PERTSONEKIN

2019-2021



AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	3. or.
SARRERA.....	8. or.
PROIEKTUAREN BILAKAERA.....	9. or.
LANKETA-METODOLOGIA.....	12. or.
PLANAREN EGITURA.....	13. or.
EKINTZAK.....	16. or.

AURKEZPENA

Adineko pertsonetik hiri lagunkoiak proiektua nazioarteko proiektua da, hiriei mundu-mailako demografia-joerei begira prestatzen laguntzen diena: biztanleriaren zahartzea eta hirigintzaren hazkundera. Adineko pertsonetik lagunkoia den komunitate bat parte-hartzearen, osasun-baldintzen hobekuntzaren eta segurtasunaren bitartez pertsona horien zahartze aktiboa sustatzen duena da, adineko pertsonen eta, ondorioz, herritar guztien bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin.

Abanto Zierbena atseginez, adineko pertsonekin / Abanto Zierbena, amigable con las personas mayores” proiektuarekin eta aurkeztzen ari garen EKINTZA-PLANAREKIN, Udalak gure herritarren zahartze-prozesua joratu nahi du, gizarte-erantzukizunean eta zahartzen ari den pertsonaren autonomiaren aitortzean oinarrituta.

Ekintza Plan hau 2016an hasitako lanaren emaitza da, gure udalerriko 14 pertsonaz osatutako LANTALDE BATEK egindakoa. Pertsona horiek Erretiratu, Alargun eta Pentsiodunen elkarteko kideak dira, eta proiektua Gizarte Ekintza Sailetik koordinatu zuten, Deustuko Unibertsitatearen laguntza teknikoarekin. Bertan, adineko pertsonen, erakundeek eta profesionalen gure udalerriko lagunkoitasuna hobetzeko egin dituzten proposamenak jasotzen dira, eta ekintza-plan honen diagnostiko-txostena egiteko baliatu dira.

PLANAREN ezaugarri nagusietako bat ADINEKO PERTSONEN ELKARTEEN parte-hartzea da, lantalde guztiek konpromisoaz eta ilusioz hartu baitute parte proiektuan.

Udalak maila tekniko eta politikoan sustatu du proiektua, eta honako hitzarmen hauek adostu dira osoko bilkuretan:

- DUBLINEKO ADIERAZPENA ADINEKO PERTSONEKIKO HIRI ETA KOMUNITATE LAGUNKOIEN INGURUAN (2016KO URRIAREN 27A).
- OME-AREN HIRI LAGUNKOIEN SARE GLOBALAREKIN BAT EGITEA (2016KO URRIAREN 27A).
- EUSKADI LAGUNKOIA SAREAREKIN BAT EGITEA (2016ko urriaren 29a).

Halaber, ekitaldi publikoak antolatu dira proiektua jakinarazi, babestu eta sustatzeko.

- Proiektua udalerriko elkarteei aurkezteko jardunaldia, 2016ko otsailaren 11n. Sergio Murillok, Bizkaiko Foru Aldundiko Autonomia Pertsonalaren Sustapen Zerbitzuaren zuzendari orokorrak, eta Hartu Emanak, Bolunta eta Nagusiak erakundeek hartu zuten parte.
- Proiektua herritarrei aurkezteko jardunaldia, 2017ko apirilaren 5ean. Bizkaiko Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Udalbatzak eta udalerriko elkarteetako kideek hartu zuten parte.
- Abanto Zierbenako Udalaren prentsaurrekoa, alkate andrearen eta lantaldeko kideen eskutik, 2017ko apirilaren 11n. “Abanto Zierbena atseginez, adineko pertsonekin / Abanto Zierbena, amigable con las personas mayores” proiektua aurkeztu zuten hedabideen aurrean.

Gure udalerriko pertsona guztiei mesede egingo dien proiektu bati hasiera eman diogulako ustearekin, alkatetzatik Abanto Zierbenako herritarrei gonbita luzatzen diegu plan honetan parte hartzeko, baita denon artean adineko pertsonetikiko lagunkoiagoa izango den herria eraikitzeko ere.

Aurkezpenari amaiera eman baino lehen, eskerrak eman nahi dizkiegu planaren prestaketan parte hartu duten pertsona eta erakunde guztiei: haien ahaleginak, konpromisoa eta ilusioa ezinbestekoak izan dira.

ALKATEA

Sinatu du: Maite Etxebarria Azpiolea andrea

SARRERA

ABANTO ZIERBENA ATSEGINEZ proiektuaren ekintza-plana OSASUNAREN MUNDU ERAKUNDEAK (OME) 2007an hiriei adineko pertsonei begira proposatu zizkien gidalerroen barruan kokatzen da, pertsona horiekiko lagunkoiagoak izateko moduak identifikatzeko helburuarekin.

Europar Batasunak “Zahartze Aktibo eta Osasuntsurako Plan Estrategikoaren” markoaren barruan jaso zuen proposamena.

Uste dugu tresna baliagarria izango dela herritarren bizi-kalitatea hobetzeko, plana prestatzean kontuan hartu baitira udalerraren ezaugarriak, bereziki orografiari eta biztanleria-motari begira.

Udalerrri barruko mailari begira, zeharkako lan-tresnatzat hartu da Udalaren sail gehienei begira.

PROIEKTUAREN BILAKAERA

LEHEN FASEA (1-2 urte)

Mekanismoak gaitzea adineko pertsonen parte-hartzea sustatzeko.

- Hasierako ebaluazioa hiria adineko pertsoneri egokitzearen inguruan.
- Hiru urteko ekintza-plana formulatzea, udalerrri guztiari zuzendua eta ebaluazio horretan oinarritua.
- Egindako aurrerapenak aztertzeo adierazleak identifikatzea.

BIGARREN FASEA (3-5 urte)

OMEari hiru urteko ekintza-plana aurkeztea. Behin lehen fasea amaituta, hiriek beren ekintza-plana aurkeztuko diote OMEari, eta honek aztertu eta onartu egingo ditu. Onarpen hori lortu ondoren, 3 urteko epea izango dute plana aurrera eramateko.

HIRUGARREN FASEA

Aurrerapenak ebaluatzea (bosgarren urtearen amaiera). Hiriak aurrerapenei buruzko txosten bat aurkeztuko dio OMEari, eta erakunde horrek txostena ebaluatuko du.

LAUGARREN FASEA

Etengabeko hobekuntza. Hasierako ekintza-planari begira aurrerapenak egon direla frogatzen duten frogak baldin badaude, hiriak etengabeko hobekuntzako fasera igaroko dira. Hiri lagunkoiek bost urteko plan berri bat prestatzeko aukera izango dute, eta, horrela, pixkanaka hiria hobetzea lortuko dute. Hiriek sarearen parte izaten jarraitu ahal izango dute, betiere ekintza-planen egikaritze-zikloak burutzeko konpromisoa hartzen badute.

LANKETA-METODOLOGIA

Plan honen lanketa adineko pertsonen, lantaldearen eta foku-taldeen parte-hartzean eta inkestetan oinarritzen da.

Prozesuari hasiera emateko adineko pertsonen lantalde bat osatu zen, prozesua sorreratik bertatik (2016) gidatu duena. Halaber, Deustuko Unibertsitateko irakasleen laguntza teknikoa ere izan da planak, baita proiektuaren aldi desberdinetan zehar parte hartu duten ikasle bekadunen laguntza ere.

Behin lantaldea eta prozesuaren oinarriak finkatu ondoren, izena eta logotipoa zehaztu ziren. Azkenik, aurreko urteko apirilean proiektua herritarren aurrean aurkeztu zuten.

2017an, dinamizazio-taldeak lagunkoitasun-diagnostiko bat prestatu zuen aurretik zeukaten informazioan oinarrituta, eta, aldi berean, talde-teknikak (2018ko martxoa-maiatza) baliatu zituzten foku-taldeak zuzentzeko. 12 foku-talde osatu zituzten: horietatik 8 adineko pertsonen osatuak izan ziren, eta, gainerakoak, zainzaileez, profesionalen eta elkarteetako kidez osatuak.

Ondoren, 140 inkesta egin zituzten 60 urtetik gorako pertsonen artean, ausazko lagin bat erabiliz.

PLANAREN EGITURA

Proiektua hau 8 Espezialitate Alorretan dago banatuta, udalerrriaren egiturek, inguruneak, zerbitzuek eta politikek adineko pertsonei begira duten lagunkoitasun-maila zehazteko. Horretarako, zahartze aktiboaren faktoreak hartu dira kontuan.

- **Aire zabaleko espazioak eta eraikin publikoak**, berdeguneak eta parkeak, espaloiak, oinezkoentzako pasabideak, ibilgailuen zirkulazioa, txirrindulari eta oinezkoek presentzia, herritarren segurtasuna, eraikin publikoen irisgarritasuna, komun publikoen erabilera...
- **Garraio publiko** irisgarria (fisikoki eta ekonomikoki), maiztasuna, ibilbide eta ordutegiak, geldialdiak eta garraio-estazioak, ordutegi eta ibilbideei buruzko informazioa, profesionalen adeitasun-maila...
- **Etxebizitza**, irisgarritasun fisiko eta ekonomikoa, eraikuntza ona, aldaketatarako laguntzak: pertsonei komunitate baten barruan zahartzeko aukera ematen dieten laguntza publikoak...
- **Parte-hartze soziala**, aisialdi- sozializazio-, kultura- eta hezkuntza-jardueretan nahiz jarduera espiritualetan parte hartzeko aukera, arrazoizko prezioak...

- **Errespetua eta gizarte-inkluzioa**, adineko pertsonei zuzendutako jarrera eta mezuak, pertsona horien lana aitortzea, zerbitzu publiko eta komertzial errespetutsuak, belaunaldien arteko harremanen sustapena...
- **Parte-hartze hiritarra eta enplegua**, hiritarrentzako parte-hartze aukerak, boluntariorzak...
- **Komunikazioa eta informazioa**, herrian gertatzen denaren inguruko informazioa duten pertsonak, beste pertsonekin eta ekitaldiekin bat egiten dutenak, informazio egoki eta praktikoarekin; ekipamendu automatikoaren erabilera (telefonoak, kutzazainak etab.); ordenagailuen, mugikorren eta Interneten erabilera...
- **Komunitate- eta osasun-zerbitzuak**, komunitatearen osasunari eta independentziari eusteko, elkarren artean koordinatuak; zerbitzu bereziak jasotzeko aukera...

Proposatutako ekintza guztiak 8 espezialitate-alor (edo lehentasunezko alor) horietako bati dagokio. Halaber, HELBURUEN barruan sailkatu dira, eta, horien barruan, EKINTZA LERROETAN.

LEHENTASUNEZKO ALORRA	HELBURUAK	EKINTZAK
Aire zabaleko espazioak eta eraikinak	Udalerriko adineko pertsonen oinezko mugikortasuna hobetzea aire zabaleko espazioen bitartez.	14
Garraioa	Adineko pertsonen mugikortasuna hobetzea garraio publikoaren bidez	9
Etxebizitza	Zahartze-prozesuak erraztea etxebizitzan bertan	12
Parte-hartzea soziala	Udalerriko adineko pertsoneri jarduera gehiago eskaintzea Bakardade-egoeran dauden adineko pertsoneri zuzendutako arretan sakontzea.	14
Errespetua eta gizarte-inklusioa	Adineko pertsonen irudi soziala hobetzea eta gizarteari egiten dioten ekarpena aitortzea, baita beren eskubide eta beharrek ere	10
Parte-hartze hiritarra eta enplegua	Parte-hartzea hiritarra sustatzea udalerriko adineko pertsonen artean	5
Komunikazioa eta informazioa	Adineko pertsonen udal-informazioa errazago eskuratzeko neurriak hartzea.	3
Komunitate- eta osasun-zerbitzuak	Komunitateko gizarte- eta osasun-zerbitzuei buruzko informazioa ematea	7

Lehentasunezko alorra	Aire zabaleko espazioak eta eraikinak.		ADIERAZLEAK	2019	2020	2021
1. helburua	<i>Udalerriko adineko pertsonen oinezko mugikortasuna hobetzea aire zabaleko espazioen bitartez.</i>					
1. EKINTZA LERROA.	<i>Adineko pertsonen mugikortasuna erraztuko dieten elementuen analisi xehatua.</i>					
Ekintzak.						
Zk.	ALORRA					
1.1.1.	Auzoetako irisgarritasunari buruzko txosten bat idaztea oinezkoen mugikortasuna errazteko neurriak proposatzeko helburuarekin: arrapalak ipintzea, eskailera mekanikoak, eskailerak kentzea...	HIRIGINTZA	ABANTO ZIERBENAKO IRISGARRITASUN-PLANEAN jasotako ekintzak.		x	
1.1.2.	Auzoetako oinezkoen mugikortasunari begira dauden beharren diagnostikoa.	HIRIGINTZA				
1.1.3.	Udalerrietako auzoetan eta auzoen artean oinezkoen mugikortasuna erraztuko duten hiri-altzariak eta argiak identifikatzea.	HIRIGINTZA				

2. EKINTZA LERROA.		<i>Oinezkoen mugikortasuna auzoen barruan.</i>	ADIERAZLEAK	2019	2020	2021
Ekintzak.						
Zk.						
1.2.1.	Kaleetan, plazetan, parkeetan eta oinezkoen pasealekuetan beharrezko aldaketak egitea aire zabaleko espazioen irisgarritasuna hobetzeko.	HIRIGINTZA	ABANTO ZIERBENAKO IRISGARRITASUN-PLANEAN jasotako ekintzak.	x	x	x
	a. Mugimendu handiko espaloiak handitzea (haurrentzako guneak, osasun- eta merkataritza-zentroak...)	HIRIGINTZA				
	b. Eraikin berrien kontrola (publiko nahiz pribatuak) espaloien tamainari begira.	HIRIGINTZA				
1.2.2.	Berdeguneen aldizkako mantentze-lanak: moztutako belarraren tratamendua,	HIRIGINTZA	Berdeguneen mantentze-lanei begira egindako hobekuntzak	X	X	X
3. EKINTZA LERROA.		<i>Oinezkoen mugikortasuna auzoen artean.</i>	ADIERAZLEAK	2019	2020	2021
Ekintzak.						
Zk.		ALORRA				
1.3.1.	Udalerriko auzoetan oinezkoentzako pasealekuak gaitzea	HIRIGINTZA	ABANTO ZIERBENAKO IRISGARRITASUN-PLANEAN jasotako ekintzak.		x	x
1.3.2.	Foru Aldundiaren eskumena diren espazio publikoak hobetzea: bidegorria, errepideak...	HIRIGINTZA				

4. EKINTZA LERROA.		Hiri-tresneria.	ADIERAZLEAK	2019	2020	2021
Ekintzak.						
Zk.	ALORRA					
1.4.1.	Oinezkoentzako eserleku, komun eta paperontziak ipintzea, oinezkoen mugikortasuna hobetzeko (bereziki aisialdi-eremuetako komun publikoei begira).	OBRAK	Ipinitako elementuen ehunekoa.		x	x
1.4.2.	Udaltzaingoak eta enplegu-programetan kontratatutako hiri-agenteez hiri-tresneriaren mantentze-lanak zaintzea.	UDALTAINGOA // Enplegu-saila	Beren auzoa pasatzeko egokia dela dioten adineko pertsonen ehunekoa	x	x	x
5. EKINTZA LERROA.		Oinezkoen mugikortasuna eta segurtasuna.				
Ekintzak.						
Zk.	Alorra					
1.5.1.	Udalerrian zehar argiak instalatzea aire zabaleko espazioetan oinezkoen mugikortasuna errazteko.	OBRAK	Instalatutako argi-kopurua. Argiztapena berritzeko proiektuan jasotakoa.	x	x	
1.5.2.	Pasealeku garrantzitsuetan zaintza-kamerak ipintzea: tren-geltokia, auzo ilunak...	OBRAK UDALTAINGOA	Beren auzoa pasatzeko egokia dela dioten adineko pertsonen ehunekoa.		x	x
1.5.3.	Udaltzaingoaren presentzia areagotzea gunen arriskutsuenetan ibilgailuen zirkulazio lasaia bermatzeko.	UDALTAINGOA		X	x	x

6. EKINTZA LERROA.			<i>Aire zabaleko espazioen hiri-erabilera.</i>	ADIERAZLEAK	2019	2020	2021
Ekintzak.							
Zk.		Alorra					
1.6.1.	Aire zabaleko espazioen hiri-erabilera sustatzea kanpaina publikoen bitartez.	INGURUMENA	Beren auzoan seguru sentitzen direla dioten adineko pertsonen ehunekoa	x	x	x	
1.6.2.	UDALTZAINGOAK ziurtatu beharko du herritarrek espazio publikoen erabilerari lotutako araudia betetzen dutela.	UDALTZAINGOA		x	x	x	

Lehentasunezko alorra	Garraioa.		ADIERAZLEAK	2019	2020	2021
2. helburua	<i>Adineko pertsonen mugikortasuna hobetzea garraio publikoaren bidez.</i>					
Adierazleak						
1. EKINTZA LERROA.	<i>Udalerrri barruko mugikortasuna.</i>					
Ekintzak.						
Zk.		ALORRA				
2.1.1.	Bizkaibusek udalerrriaren barruan ematen duen zerbitzuaren inguruko analisia eta udalerrri barruko garraiorako proposamena. Administrazio arduradunarekiko koordinazioa.	HIRIGINTZA	Udalerrriko garraio publikoaren lagunkotasuna eta irisgarritasuna hobetzeko egindako ekintzak eta erakunde arduradunekiko koordinazioa		x	x
2.1.2.	Bizkaibus zerbitzua hobetzeko proposamena idaztea, batez ere geltokiei, markesinei eta ordutegiari begira. Administrazio arduradunarekiko koordinazioa.	HIRIGINTZA			x	x
2.1.3.	Udalerrriko landa-eremuen eta hiri-nukleoaren arteko garraio-zerbitzua proiektu pilotu moduan aztertzea eta abian jartzea.	HIRIGINTZA	Azterketa burutzea	x		
2. EKINTZA LERROA.	<i>Beste udalerrri eta interes-guneekiko mugikortasuna.</i>					
Ekintzak.						
Zk.		ALORRA				
2.2.1.	Bizkaibusek udalerrriaren eta kanpoko interes-guneen artean ematen duen zerbitzuaren analisia. Administrazio arduradunarekiko koordinazioa.	HIRIGINTZA	Udalerrriko garraio publikoaren lagunkotasuna eta irisgarritasuna hobetzeko egindako ekintzak eta erakunde arduradunekiko koordinazioa		x	
2.2.2.	Bizkaibus zerbitzua hobetzeko proposamena idaztea, batez ere geltokiei, markesinei ibilbideei eta ordutegiari begira. Administrazio arduradunarekiko koordinazioa.	HIRIGINTZA			x	
2.2.3.	Tren-zerbitzuaren irisgarritasuna hobetzea.	HIRIGINTZA			x	x

3. EKINTZA LERROA.		<i>Lagunkotasuna eta irisgarritasuna garraio-ibilgailuetan.</i>	ADIERAZLEAK	2019	2020	2021
Ekintzak.						
Zk.		ALORRA				
2.3.1.	Garraio-zerbitzuan adineko pertsonenganako arretaren inguruan sentsibilizatzea: abiatzea, espalora hurbiltzea... Koordinazioa administrazioa arduradunarekin.	HIRIGINTZA	Udalerriko garraio publikoaren lagunkotasuna eta irisgarritasuna hobetzeko egindako ekintzak eta erakunde arduradunekiko koordinazioa	X	x	x
2.3.2.	Ibilgailura sartzeko irisgarritasuna hobetzea, baita ibilgailu barrukoa ere.					
2.3.3.	Udalerriko autobus-zerbitzuari lotutako informazioa hobetzea					

Lehentasunezko alorra	Etxebizitza.		ADIERAZLEAK	2019	2020	2021
3. helburua	<i>Zahartze-prozesuak erraztea etxebizitzan bertan.</i>					
Adierazleak						
1. EKINTZA LERROA.	<i>Etxean zahartzearen aldeko babesari buruzko informazio orokorra.</i>					
Ekintzak.						
Zk.		ALORRA				
3.1.1.	Etxean zahartzearen aldeko babesa lortzeko informazioa azpimarratzea, irisgarritasunaren, babesa sozialaren eta barrera ekonomikoak gainditzearen inguruan (DSBE, GLL)	EKINTZA SOZIALA HIRIGINTZA	Informazio-dokumentu bat idatzi eta zabaltzea	x	x	x
2. EKINTZA LERROA.	<i>Etxebizitzari lotutako irisgarritasuna</i>					
Ekintzak.						
Zk.		ALORRA				
3.2.1.	Udaletxearen eskutik irisgarritasunari lotutako laguntza ekonomikoak eskaintzea, dagoeneko existitzen direnen osagarri moduan.	EKINTZA SOZIALA HIRIGINTZA	Emandako laguntza ekonomikoak		X	X
3.2.2.	Etxebizitza berriak eskaintzea euren etxeetako irisgarritasuna hobetu ezin dezaketen adineko pertsoneri. Beste administrazioekiko koordinazioa	HIRIGINTZA	Etxebizitza berriak eskaintzeko neurriak	X	x	x

3. EKINTZA LERROA.		Adineko pertsonen babesa etxebizitzan.	ADIERAZLEAK	2019	2020	2021
Ekintzak.						
Zk.		Alorra				
3.3.1.	Etxebizitzan zahartzearen alde administrazio publikoen eskutik (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia eta Udala) gizarte-zerbitzuak eskuratzeko izapideak egiten laguntzea eta horiei lotutako informazioa azpimarratzea.	EKINTZA SOZIALA	Informazio-dokumentu bat idatzi eta zabaltzea	X	X	X
3.3.2.	Etxean zahartzeko prozesuaren aldeko profesionalak eskaintzen dituzten gizarte-zerbitzu komunitarioak indartzea.	EKINTZA SOZIALA		X	X	X
	a. Telelaguntza-zerbitzua eskaintzea behar duten adineko pertsonen. Administrazio arduradunarekiko koordinazioa	EKINTZA SOZIALA	Abian jarritako zerbitzuaren ehunekoa	x	x	x
	b. Etxeko laguntza-zerbitzua zabaltzea, bai erabiltzaileei begira eta bai ordutegiari begira, laguntzailearen txandaketa saihestuz erabiltzailearekiko lotura indartzeko.	EKINTZA SOZIALA	Abian jarritako zerbitzuen ehunekoa	X	X	X
	c. Eguneko zentroak geroz eta mendekotasun-egoera gehiagoz arduratzea, adineko pertsonak zahar-egoitzetan sartu behar ez izateko. Administrazio arduradunarekiko koordinazioa.	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	Abian jarritako zerbitzuen ehunekoa	x	x	x
	d. Diagnostikoak egitea eta etxebizitza barruko arrisku-egoerak murriztea (alde batetik bestera joatea, sukaldea, berogailua...).	EKINTZA SOZIALA	Egindako diagnostikoak	x	x	x
	e. Adineko pertsonen zuzendutako otordu-zerbitzuaren bideragarritasuna aztertzea, pertsona horien elikadura orekatua bermatzeko helburuarekin.	EKINTZA SOZIALA	Azterketa burutzea		x	

3.3.3.	Udalak (erakunde arduradunekin koordinazioan) adineko pertsonak prestatzea arrisku-egoerei aurre egiten jakiteko	EKINTZA SOZIALA UDALZAINGOA ERTZAINZA	Burututako prestakuntza-ekintzak	x	x	x
3.3.4.	Pertsonen beren etxeetan zahartzen laguntzeko boluntario-zerbitzua sustatzea.	EKINTZA SOZIALA	Boluntarioak sustatzeko ekintzak		X	x
4. EKINTZA LERROA.		<i>Barrera ekonomikoak gainditzea.</i>				
Ekintzak.						
Zk.		ALORRA				
3.4.1.	Etxean bizi diren adineko pertsonen artean egoera ekonomiko eskasa dutenak identifikatzea.	EKINTZA SOZIALA	Baliabide mugatuak dituzten adineko pertsonak	X	X	x
3.4.2.	Tasa eta zergen hobariak diru-sarrera urriak dituzten adineko pertsonentzat.	ESKU-HARTZEA	Hartutako neurriak		x	x
3.4.3.	Pentsioak eta DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA bateratzea. Administrazio arduradunarekiko koordinazioa	EKINTZA SOZIALA	Administrazio arduradunarekiko koordinazioa	X	X	x
3.4.4.	Administrazio-izapideak hauteman eta babestea energia-hornitzaileen hobariei dagokienez.	EKINTZA SOZIALA	Burututako ekintzen ehunekoak	X	X	X
3.4.5.	Gizarte-larrialdietarako laguntzak aplikatzea etxean zahartzea oztopatzen duten barrera ekonomikoak gainditzeko	EKINTZA SOZIALA	Emandako laguntzen ehunekoak	X	X	x

Lehentasunezko alorra	Parte-hartzea soziala.		ADIERAZLEAK	2019	2020	2021
4. helburua	<i>Udalerriko adineko pertsonei jarduera gehiago eskaintzea.</i>					
Adierazleak						
1. EKINTZA LERROA.	<i>Jarduera-planak.</i>					
Ekintzak.						
Zk.		ALORRA				
4.1.1.	Pertsonek lehentasunak identifikatzea sustapen-eragileekin koordinatutako jardura-planak sortzeko	EKINTZA SOZIALA	Identifikatutako jardueren ehunekoa		x	
4.1.2.	Adineko pertsonei zuzendutako prestakuntza parte-hartze sozialak dituen onura fisiko eta psikologikoen berri emateko eta haien motibazioa areagotzeko.	EKINTZA SOZIALA	Burututako prestakuntza-ekintzak		X	X
2. EKINTZA LERROA.	<i>Udalerriko jardura sozialetarako erabiltzen de ekipamendu publikoa identifikatzea eta hobetzea.</i>					
Ekintzak.						
Zk.		ALORRA				
4.2.1.	Adineko pertsonek elkarrekin ez diren espazio eta lokaletan jarduerak antolatzea, beste erakundeetako pertsonek parte-hartzea errazteko.	EKINTZA SOZIALA	Adineko pertsonek ekipamenduetatik kanpoko ekintzen ehunekoa		x	x
4.2.2.	Las Carrerasen bilera-espazio zabalgo bat sortzea ekintza kulturaletarako.	HIRIGINTZA	Espazio zabalagoak sortzea			x
4.2.3.	Gallartako espazio publikoak hobetzea: ekitaldi-aretoa, erakusketa-aretoa...	HIRIGINTZA	Espazio publikoak egokitzea			x

3. EKINTZA LERROA.		<i>Kudeaketa publikoa eta asoziatiboa koordinatzea jarduerak aurrera eramateko.</i>	ADIERAZLEAK	2019	2020	2021
Ekintzak.						
Zk.		ALORRA				
4.3.1.	Udalak jardueren kudeaketari begira duen erantzukizuna indartzea.	UDAL-ARLO GUZTIAK	Burututako ekintzen ehunekoa		X	X
4.3.2.	Boluntarioen presentzia indartzea elkarteek bazkideekiko duten harremanari begira.	UDAL-ARLO GUZTIAK.	Burututako ekintzen ehunekoa		X	X
5. helburua	<i>Bakardade-egoeran dauden adineko pertsonen zuzendutako arretan sakontzea.</i>					
Adierazleak						
1. EKINTZA LERROA.		<i>Bakardade/isolamendu egoeran dauden pertsonak identifikatzea.</i>				
Ekintzak.						
Zk.		ALORRA				
5.1.1.	Bakarrik eta/edo adin bereko pertsonen bizi diren 80 urtetik gorako adineko pertsonen behar sozialen behatokia mantentzea.	EKINTZA SOZIALA	Hautemandako eta zaindutako adineko pertsonen ehunekoa	X	X	X
5.1.2.	Isolamendu-egoerak antzematea herritarren kontzientziatzeko kanpaina zehatzen bidez.	UDAL-ARLO GUZTIAK	Hautemandako eta zaindutako adineko pertsonen ehunekoa	X	X	X

2. EKINTZA LERROA.		<i>Jarduketa-plan pertsonalizatuak.</i>	ADIERAZLEAK	2019	2020	2021
Ekintzak.						
Zk.		ALORRA				
5.2.1.	Adineko pertsoneri laguntzeko bizilagun-harremanak sustatzea: jabeen elkarteetan bitartez bizilagun-sareak osatzea, praktika lagunkoak sustatzea...	EKINTZA SOZIALA	Osatutako bizilagun-sareak		x	x
5.2.2.	Bakarrik edo adin bereko pertsonekin bizi diren 80 urtetik gorako adineko pertsonen etxeetan jarritako ke-detektagailuak mantentzea.	EKINTZA SOZIALA	Ipinitako ke-detektagailuen ehunekoa	x	x	x
5.2.3.	Etxeko laguntza-zerbitzua mantentzea, adineko pertsoneri zerbitzuarekin lotutako informazioa eskainiz.	EKINTZA SOZIALA	Abian jarritako zerbitzuen ehunekoa	x	x	x
5.2.4.	Boluntarioak prestatzea bakarrik bizi diren adineko pertsoneri laguntzeko, etxebizitza barruan eta etxebizitzatik kanpo.	EKINTZA SOZIALA	Boluntarioen ehunekoa	x		
5.2.5.	Bakarrik dauden adineko pertsonen elkarteetan duten parte-hartzea hobetuko duten neurriak hartzea.	EKINTZA SOZIALA	Osatutako sareen ehunekoa		x	x

Lehentasunezko alorra	Errespetua eta gizarte-inklusioa.		ADIERAZLEAK	2019	2020	2021
6. helburua	<i>Adineko pertsonen irudi soziala hobetzea eta gizarteari egiten dioten ekarpena aitortzea, baita beren eskubide eta beharrek ere.</i>					
Adierazleak						
1. EKINTZA LERROA.	<i>Adineko pertsonen hedabideetan duten irudia.</i>					
Ekintzak.						
Zk.		ALORRA				
6.1.1.	Adineko pertsonen presentzia areagotzea hedabideetan: taulak, web-orriak, kartelak, ekitaldiak...	UDAL-ARLO GUZTIAK	Adineko pertsonen hedabideetan izan duten parte-hartzearen ehunekoa	x	x	x
6.1.2.	Zahartzearen pertzepzio soziala hobetzeko kanpainak abiaraztea, emakumeen parte-hartzeari arreta berezia eskainiz eta azpimarratuz beren rola familiako kideen zaintzatik harago doala.	UDAL-ARLO GUZTIAK			x	x
2. EKINTZA LERROA.	<i>Adineko pertsonen gizarte-ekarpena aintzatestea.</i>					
Ekintzak.						
Zk.		ALORRA				
6.2.1.	Adineko pertsonen gizarte-ekarpena aintzatesteko ekintzak burutzea.	UDAL-ARLO GUZTIAK	ADINEKO PERTSONEN EKARPENA AINTZATESTKO EKINTZEN EHUNEKOA	x	x	x
6.2.2.	“Abanto Zierbena atseginez saria” sortzea eta aintzatespena urtero egitea.	EKINTZA SOZIALA			x	x

3. EKINTZA LERROA.		Udalerriko belaunaldien arteko harremanak.	ADIERAZLEAK	2019	2020	2021
Ekintzak.						
Zk.		ALORRA				
6.3.1.	Belaunaldien arteko proiektua sustatzea aurretik egindakoa oinarritzat hartuz eta ekimen berriak gehituz.		GARATUTAKO BELAUNALDIEN ARTEKO EKINTZAK		X	X
	a. Belaunaldien arteko harremanak garatzea udalerriko bizitza komunitarioan.	UDAL-ARLO GUZTIAK			X	X
	b. Belaunaldien arteko harremanak indartzea ikastetxeen testuinguruan.	EKINTZA SOZIALA, GAZTEAK, HEZKUNTZA				
4. EKINTZA LERROA.		Adineko pertsonen behar eta eskubideak.	I			
Ekintzak.						
Zk.		ALORRAK				
6.4.1.	Sentsibilizazio-kanpainak abiaraztea adineko pertsonen eskubide eta beharren inguruan.	EKINTZA SOZIALA			X	X
6.4.2.	Adineko pertsonenganako tratu txarrak antzemateko, aztertze eta deuseztatzeko proiektu bat sortzea beste erakundeekiko koordinazioarekin.	EKINTZA SOZIALA, BERDINTASUNA		X		

5. EKINTZA LERROA.		<i>Merkataritza- eta ostalaritza-zerbitzuak, farmaziak eta banku-erakunde lagunkoiak.</i>	ADIERAZLEAK	2019	2020	2021
Ekintzak.						
Zk.		ALORRA				
6.5.1.	Merkataritza- eta ostalaritza-zerbitzuen lagunkotasuna hobetzea adineko pertsoneri begira. Saltoki lagunkoien kanpaina sustatzea	EKINTZA SOZIALA, OSASUNA, MERKATARITZA.	SALTOKI LAGUNKOIEN KANPAINAREKIN lotutako ekintzak	x		
6.5.2.	Etengabeko farmazia-zerbitzua ematea udalerrian. Erakunde arduradunarekiko koordinazioa.				X	
6.5.3.	Banku-erakundeek adineko pertsonetikiko duten harremana hobetzea. Erakunde arduradunarekiko koordinazioa.				X	

Lehentasunezko alorra	Parte-hartze hiritarra eta enplegua.		ADIERAZLEAK	2019	2020	2021
7. helburua	<i>Parte-hartzea hiritarra sustatzea udalerriko adineko pertsonen artean.</i>					
Adierazleak						
1. EKINTZA LERROA.	<i>Boluntariotza.</i>					
Ekintzak.						
Zk.		ALORRA				
7.1.1.	Boluntarioak eskaintzen dituzten gizarte-erakundeei buruzko informazioa zabaltzea.	UDAL-ARLO GUZTIAK	Burututako ekintzak eta parte-hartzaileen ehunekoa areagotzea		X	X
7.1.2.	Sentsibilizazio-kanpainak abiaraztea boluntarioek egiten duten lana balioesteko.	UDAL-ARLO GUZTIAK			X	X
7.1.3.	Udaletxetik boluntario-talde baten sorrera sustatzea eta taldearen prestakuntzan parte hartzea.	UDAL-ARLO GUZTIAK			X	X
2. EKINTZA LERROA.	<i>Herritarren parte-hartzea.</i>					
Ekintzak.						
Zk.		ALORRA				
7.2.1.	Udalerrian Adineko Pertsonen Kontseilu bat sortzea.	EKINTZA SOZIALA	Kontseilua sortzea		X	
7.2.2.	Adineko pertsonen Udalaren osoko bilkuretan parte hartzeko ekimenak sustatzea.	IIDAZKARITZA	Osoko bilkuretan parte hartzen duten pertsonen ehunekoa	X	X	X

Lehentasunezko alorra	Komunikazioa eta informazioa.		ADIERAZLEAK	2019	2020	2021
8. helburua	<i>Adineko pertsonen udal-informazioa errazago eskuratzeko neurriak hartzea.</i>					
Adierazleak						
1. EKINTZA LERROA.	<i>"Abanto Zierbena atseginez adineko pertsonekin" ezagutaraztea</i>					
Ekintzak.						
Zk.		ALORRA				
8.1.1.	Aldizkako argitalpen bat sortzea akzio-planaren aurrerapenen berri emateko.	EKINTZA SOZIALA	ABANTO ZIERBENA ATSEGINEZ planaren dibulgazio-jardueren ehunekoak	X		
2. EKINTZA LERROA.	<i>Udal-informazio irisgarria</i>					
Ekintzak.						
Zk.		ALORRA				
8.2.1.	Udalaren informazio-baliabideak adineko pertsonen beharretara egokitzea: idatzizko dokumentuak, postontziak, informazio-etaulak, irakurketa erraza, informazioaren abiadura eta hedapena...	EKINTZA SOZIALA	Udal-hedabideetan burututako moldaketa-ekintzak		X	x
3. EKINTZA LERROA.	<i>Barrera digitalak gainditzea</i>					
Ekintzak.						
Zk.		Alorra				
8.3.1.	Oinarrizko ikastaroak eta ikastaro espezifikoko antolatzea adineko pertsonentzat, ordenagailuak, Internet eta <i>smartphoneak</i> erabiltzen ikasteko. Udalak eta bestelako erakunde arduradunek antolatuko dituzte.	EKINTZA SOZIALA	Burututako prestakuntza-ekintzak	X	X	X

Lehentasunezko alorra		Komunitate- eta osasun-zerbitzuak.	ADIERAZLEAK	2019	2020	2021
9. helburua		Komunitateko gizarte- eta osasun-zerbitzuei buruzko informazioa ematea.				
Adierazleak						
1. EKINTZA LERROA.		Komunitate- eta osasun-zerbitzuei buruzko informazioa eskuratzea.				
Ekintzak.						
Zk.	ALORRA					
9.1.1.	Herritarrei, eta bereziki adineko pertsonei, aldizkako informazioa bidaltzea eskuragarri dauden gizarte-baliabideen inguruan. Horretarako, informazio-jardunaldiak antolatuko dira, eta web-orriak, taulak eta diptiko informatikoak erabiliko dira, landa-eremuei arreta berezia eskainiz.	EKINTZA SOZIALA	Burututako informazio-ekintzak	X	X	X
2. EKINTZA LERROA.		Zerbitzuen eskaintza.				
Ekintzak.						
Zk.	ALORRA					
9.2.1.	Etxean zahartzeko prozesuaren aldeko profesionalak eskaintzen dituzten gizarte-zerbitzu komunitarioak indartzea (3.3.2. ekintza).	EKINTZA SOZIALA	Zerbitzu horiek erabiltzen dituzten adineko pertsonen ehunekoa	X	x	x
9.2.2.	Udalerriko adineko pertsonei jarduera gehiago eskaintzea (4. helburua).	EKINTZA SOZIALA			X	X
9.2.3.	Bakardade-egoeran dauden adineko pertsonei zuzendutako arretan sakontzea (5. helburua).	EKINTZA SOZIALA		X	X	X

9.2.4.	Zaintzaileentzako Zainduz programa indartzea.	EKINTZA SOZIALA	Zainduz Programan zaintzen dituzten zaintzaileen kopurua areagotzea	x	x	x
	a. Zerbitzuaren inguruko informazio-kanpainak antolatzea.					
	b. Zaintzaileek Zainduz programaren jardueretan duten parte-hartzea sustatzea.					
	c. Mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituzten pertsonari egiten duten lana aitortzeko kanpainak bultzatzea.					
9.2.5.	Mendekotasuna duten adineko pertsonen eguneko zentroa asteburutan ere irekitzea. Erakunde arduradunarekiko koordinazioa.	EKINTZA SOZIALA	Zerbitzua ematen hastea		X	
9.2.6.	Udalerriko osasun- eta gizarte-zerbitzuak koordinatzea, gaixotasun kronikoak dituzten pertsonari arreta berezia eskainiz	EKINTZA SOZIALA OSAKIDETZA		X	x	x



**ABANTO
ZIERBENA**
atseginez!

Adineko pertsonekin

PLAN DE ACCIÓN ATSEGINEZ



UDALA • AYUNTAMIENTO

Bizkaia - Elizkerpe - Acción Social
Avda. El Minero, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 46 20 00 Fax 94 63 91 13



ABANTO ZIERBENA AMIGABLE CON LAS PERSONAS MAYORES

2019-2021

ÍNDICE

PRESENTACIÓN.....	pág.3
INTRODUCCIÓN.....	pág.7
DESARROLLO DEL PROYECTO.....	pág.8
METODOLOGÍA DE ELABORACIÓN.....	pág. 10
ESTRUCTURA DEL PLAN.....	pág.11
ACCIONES.....	pág.14

PRESENTACIÓN

El proyecto de ciudades amigables con las personas mayores es un proyecto internacional que ayuda a las ciudades a prepararse para dos tendencias demográficas mundiales: el envejecimiento de la población y la urbanización creciente. Una comunidad amigable con las personas mayores es aquella que tiene como objetivo impulsar el envejecimiento activo de éstas mediante la participación, la mejora de las condiciones de salud y el aumento de la seguridad de los entornos, a fin de incrementar la calidad de vida de las personas de edad en particular y, en consecuencia, de toda la ciudadanía.

Con el Proyecto Abanto Zierbena atseginez, adineko pertsonekin / Abanto Zierbena, amigable con las personas mayores” y con este PLAN DE ACCIÓN que os presentamos, este Ayuntamiento quiere abordar el proceso de envejecimiento de nuestra población desde la corresponsabilidad social y el reconocimiento de la autonomía como un valor a impulsar en la persona que envejece.

Gizarte-Ekintza \ Accion Social
Ezker Berraketa
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

Este Plan de Acción es el fruto de un trabajo iniciado en el año 2016, realizado por un GRUPO MOTOR formado por 14 personas de nuestro municipio, pertenecientes a las Asociaciones de Personas Jubiladas, Viudas y Pensionistas, y coordinado desde el área de Acción Social con la asistencia técnica de la Universidad de Deusto. En él se recogen las propuestas que las personas mayores, entidades, profesionales, etc...han realizado para mejorar la amigabilidad de nuestro municipio, y que han servido de base para la elaboración del informe diagnóstico y este plan de acción.

Una de las características que define este PLAN es su carácter altamente participativo, que ha surgido de las ASOCIACIONES DE PERSONAS MAYORES, y en el que se ha trabajado con una fuerte implicación e ilusión por parte de todo el equipo participante.

Desde el Ayuntamiento, se ha dado un total apoyo a este proyecto impulsándolo a nivel técnico y político, adoptándose los siguientes acuerdos en diferentes sesiones plenarios:

- DECLARACIÓN DE DUBLÍN SOBRE LAS CIUDADES Y COMUNIDADES AMIGABLES CON LAS PERSONAS MAYORES 27 DE OCTUBRE DE 2016.
- ADHESIÓN A LA RED MUNDIAL DE CIUDADES AMIGABLES DE LA ORGANIZACIÓN MUNDIAL DE LA SALUD 27 DE OCTUBRE DE 2016.

Asimismo se han realizado diferentes actos públicos para informar, apoyar e impulsar el proyecto.

- Jornada de presentación del Proyecto a las Asociaciones del Municipio, el 11 de febrero de 2016. Con la asistencia de Sergio Murillo, Director General del Servicio de Promoción de la Autonomía Personal de la Diputación Foral de Bizkaia, y las entidades Hartu Emanak, Bolunta y Nagusiak.
- Jornada de Presentación del Proyecto a la ciudadanía el 5 de Abril de 2017 por parte del grupo motor, con la presencia de Diputación Foral de Bizkaia, Gobierno Vasco, la Corporación Municipal, y personas pertenecientes a las Asociaciones del Municipio y a diferentes entidades.
- Rueda de prensa, 11 de Abril de 2017 realizada en el Ayuntamiento de Abanto Zierbena, a través de la Alcaldesa, y con la participación de miembros del equipo motor, presentan el proyecto “Abanto Zierbena atseginez, adineko pertsonekin / Abanto Zierbena,

amigable con las personas mayores”, a los medios de comunicación.

Con el firme convencimiento de iniciar un camino que beneficiará al conjunto de las personas de nuestro municipio, desde esta alcaldía se invita a toda la ciudadanía de Abanto Zierbena a participar en la implementación y desarrollo de este plan, y así conseguir entre todas y todos que nuestro pueblo sea más amigable con las personas mayores.

No queremos finalizar esta presentación sin antes agradecer a todas y cada una de las personas y entidades que han participado en la elaboración de este plan, todo su esfuerzo, dedicación e ilusión con el que han trabajado durante todo este tiempo.

ALCALDESA

Fdo.: D^a Maite Etxebarria Azpiolea

INTRODUCCIÓN

El Plan de Acción del Proyecto ABANTO ZIERBENA ATSEGINEZ se encuadra dentro de las directrices que la ORGANIZACIÓN MUNDIAL DE LA SALUD (OMS) propuso en el año 2007 para ayudar a las ciudades a mirarse desde la perspectiva de las personas mayores, para identificar en qué aspectos y de qué manera pueden ser más amigables con ellas.

